

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 124.000 euro bideratu ditu baztertuta geratzeko arriskuan daudenak laneratzeko

*Programa Adecco Fundazioarekin elkarlanean egin da eta gutxienez 30 langabetu laneratzeko direla aurreikusi da*

Miércoles, 07 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak *Inserocupación* izeneko programa jarri du abian Adecco Fundazioarekin elkarlanean, jendea laneratzeko. Proiektu horri esker lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten eta lana bilatzen ari diren 60 pertsona laneratzeko lagunduko da: ezintasunak dituztenak, gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzen dutenak eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden beste langabetu batzuk.



Nafarroako Gobernuaren eta Adecco Fundazioaren arteko hitzarmena sinatzen. Francisco Mesonero eta José Javier Esparza.

Programa hori burutzeko hitzarmena gaur goizean sinatu dute José Javier Esparza Abaurrea Nafarroako Gobernuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eta Francisco Mesonero Fernández de Córdoba Adecco Fundazioko zuzendari kudeatzaileak. Erakunde horrek konpromisoa hartu du proiektuan parte hartzen duten 60 pertaideen % 50 laneratzeko gutxienez.

Adecco Fundazioak programan parte hartzen dutenen kontratazio aukerak hobetzeko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditu. Zerbitzu horiek hau eskaintzen dute: lanerako orientazio pertsonalizatua (gaitasunak antzematea, laneko elkarrizketei aurre emateko aholkularitza eta curriculum vitaeak egitea), trebakuntza ibilbide pertsonalizatuen diseinua eta lan eskaintzen bilaketa aktiboa, etengabe ebaluatuz, eta langabetuarentzako laguntza prozesu osoan zehar.

José Javier Esparza Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak *Inserocupación* bezalako programen garrantzia azpimarratu du, lana aurkitzeko zailtasun bereziak dituztenei laguntzen dietelako eta, hala, enplegurako aukera gehiago izaten dituztelako. Bestalde, Francisco Mesonero Adecco Fundazioko zuzendari kudeatzaileak beste urte batez gehien behar dutenei laguntzeko proiektua hasteko duen ilusioa adierazi du eta esan du ez duela nahi ezintasunak, sexua edo adina dela eta

nafarrik lanetik baztertzea.

*Inserocupación* proiektua Nafarroako Enplegu Zerbitzuak urtero abiatzen dituen programa esperimentalen barruan dago jasota. Erakunde pribatuekin jarduten da lankidetzan, eta horiek konpromisoa hartzen dute gutxienez ere partaideen % 35 laneratzea lortzeko. 2010ean, enplegurako zailtasun bereziko taldeetako 480 pertsonak mota horretako 8 programatan hartu zuten parte.

Programa horiek IV. Enplegu Planaren barruan garatzen dira. Plana Nafarroako Gobernuak eta Foru Erkidegoko enpresen elkarte eta sindikatu esanguratsuenen artean izenpetu zen kohesio handiagoko lan merkatu bidezkoago bat lortzeko.